

1990eko euskal liburugintza (5)

JOAN MARI TORREALDAI



HAUR/GAZTE literaturaren eta irakaskuntzaren ondoren, helduen literatura da sailik hornitua izazko liburuetan. Produktzio osoaren %

19a hartzen du helduen literatura. 150 liburutik gora. Aurreko urtean baino 35 liburu gehiago argitaratu dira sail honetan.

Topikoek bizialdi luzea dutenez, olerkia dela euskal literaturaren gehien publikatzen dena esanez ibili da jendea urte luzetan. Ba, ez. Urte asko da narritabak olerkiari gaita hartu ziola, kopuru aldetik. Titulu gehiago atzeratzen da narritabari, eta ale gehiago ere bai bakoitze, elaberri eta ipuinetan egiten diren tiradak poesiakoak baino handiagoak bait dira.

Helduen literaturaren % 35 da elaberria, gehiena bera. Parezan datoz, gero, narrazio motza eta olerkia, % 17ekin. Beraz, narrazio luzea eta motza, biak batean kontsideratzen baditugu, literaturaren produktzio erdia pasatxo hartzen dute bien artean. Olerkiarantz da hirugarren tokia.

Urteetan gaude egoera berdintsuan. Merkatuaren legea da nonbait. Poesia argitara emateko argitaratzaileak ez daude oso bero. Ikusi egiten da. Errozago saltzen da narritaba. Bistan da. Literaturazaleen artean ala bestela? Horra gakoak. «Erabilgarriago», «funtzionalago» omen da narritaba. Honek, bistan da, ez du berez zerikusirik literaturazaleen artean, irakaskuntzarekin baizik. Euskara hobetzeko eta praktikatzeko ere balio bait du liburuak. Eta narritaba «egokiagoa» bide da horretarako.

Eta saiakera? Ezin da esan saiakera bizirik dagoenik ere, % 7'rekin. Saiakera promozionatzeko interesik edo ahalik ez da inon ikusten. Pentsamenduen alorra erdarari utzia diogu. Amore emanda eta etsita, akaso?

Berrehun mila gara! Aurrera!

GEXAN LANTZIRI



EUSKAL Herriko erdal itasoa itogarri honetan, euskaraz bizi nahi dugunok zenbatote gara, gaur egun? Eman dezagun

200.000 gara. Duela 30 urte zenbatote ginen? Erdia ere ez, beharbada. Euskaradunak bai, gehiago izango ginen duela 30 urte. Baina, Euskararen eta Herriaren kontzientziarik gabekoak gehienak. Azken hogeitamar urte hauetan, eta azken hamar urte hauetan bereziki, euskarak gizartearen eskuatua duen eremua ez da batera gutxietekoa: dela irakaskuntzan, komunikabide mintzatu ala idatzietan, administratzaian eta abar lekutan. Eta hori, gaurko bizitza modernoak hizkuntza bati eskatzen dion gaitasun osoz. Ez dira ez, beraz, alferrik eginak izan gaur arte eginko lan guztiak. Datoren hogeitamar urte zehar egiten diren urrats haundiagoen oinarri baita padakoak dira.

Geroa gaurkoaren esku dagoela hein handi batean, dudarik ez. Baina ez osoki, halere. Atzokoek eta gaurkoek egin duguna baino aintzez gehiago egin dute biharokok. Mendez mende, gaur arte irauan duen euskal izpiritu ez da gero horrela gelduko!

Eta gisa guziz, ehun edo berrehun urteren buruan, euskara osoki desagertuko dela, gaur zientifikoki frogatuta ere, horrek ez du euskarazaleen jokoera aldatuko. Indartsuko baiziki! Gure bizitzaren zentzua, hautatua dugun bide euskaldunaren erdi erditik baitoa. Eta zer, egun batez hilen gara jakiteak, ahulzen ote du gure bizitza? Ez, alderantziz baiziki! Halaber gertatzen da euskararekin ere.

EL CORREO ESPAÑOL

Onura aberastasunik gabe

Euskal Ekonomiari buruzko Lan-kide Aurrezkiaren txostenak, herriari buruz eritzi publikoari emandako imajinak, ez dauka zerikusi handiegirik, duela denbora batetik hona zabaldu zen euforiarekin; euforia hori negozio errazetan eta errentagarritasun handikoetan oinarritu zen eta Euskal Herriari eta Espainian garai-leen belaunaldia sortu dute.

(...)

80ko hamarkadaren erdialdetik —lehen beste herri batzutan gertatu zen— gure artean garaipen mentalitate ezarri zen, berehalako arrakastan oinarritua, aitzakiarik gabeko espekulazioan eta legezketasuneko azken baliabideak erabiltzean. Jokaera guzti horien ondorioz gezurteko ekonomiak gora egin du, inproduktiboa eta herrian aberastasunik sortzen ez duena.

EDITORIALA / 1991-VII-26

EL PAIS

Kongresu sandinista

Sandinismoko iharduera desberdinen nazioartean ere badute isladarik. Alde batek Internazional Sozialistarekin (IS) loturak sendotu nahi ditu,

HEMEROTEKA



FERRERES / LA VANGUARDIA / 91-VII-26

EL SOL

Balkanak, arrazoi eta beldur estrategikoak

bestiak Hirugarren Munduko ezkerreko alderdiekin fronte bat bultzatu nahi du. Frantziako Alderdi Sozialistako ordezkariak eskatu zuen, ISK kontu gehiago izateko Hegoamerikatik sortutako alderdi berriekin. Bestalde, Elena Floresek —PSOEko ordezkaria— kongresutik irten egin zen, Herri Batasuna han zegoelako. Joera askotako partaide atzeritarrak dauden kongresu batean —baita El Salvadorreko ARENA ultraeskuindarra ere— ez dirudi oso justifikatua denik kongresukide horren jokabidea. HB terrorismoaren konplizea dela salatzeak, komentutzeak gaitasuna eskatzen du, ez handikeriako portaera edukitzea.

EDITORIALA / 1991-VII-26

legezketasuna apurte gabe. (...)

Imajina dezagun Espainiaren kasua. Zer esango genuke Euskadi Pirinotatik Canfrancera iritsiko balitz eta Katulunaren itasoa Cadizeraingo joango balitz? Judanik ez litzateke izango 1978ko Konstituzioa, barru-kaideko Gaztelaniakoak, Extremadurakoak eta Andaluziakoak irauteko eskubidea baizik. Hori ari zaio gertatzen Jugoslaviari.

J.P. DESPIERTO / 1991-VII-26

EL DIARIO VASCO

Erregeei itzaroten

EAJri, agintean dagoen alderdia eta ia nagusi dena Autonomi Elkartean gehien kezkatzen diona da ETA/HB biomaiaren inguruan dabilen jendeak Euskal Herriari imajina gogor kaltezea, ozarkeria zakarrekini eta jarrea are eta istultsua eta larriagoekin, eta horiek —EAJko buruzagiek oso ondo adierazi bezala— gutxiengoaren ekintza izan arren, herri honetarik kanpo, oso erraz lepora dakiokete bertako biztanlego osoari. Era berean, eta Estatuaren batasunagatik duten zeloa erabat besteen arazoak denez, beldur dira ahultasun eta oportunismo txakertagoatik ez ote dieten leporatuko, Erregeen etorrerarekin hain jarraera errespetuagari eta adeitsu izatea, ez bait zen horrenbesteko. Ardantzak esan «apostuak» frogan jarriko du, denen gaitetik, eta denen aurrean, bere oreka ahalena.

J.M. DE AZAOLA / 1991-VII-26

ZUZENDARIARI

Imanol Muruari

Ba dakit opporak lasai eta bakean pasa nahi dituzula. Nik ez nizuke inola ere opporetan ongi merezitako atsedena hartzea eragotzi nahi, eta gainera, proposatzen dizudan gogoeta edo jarraera hartze hau, opporak lasai pasata gero ere egin dezakezu.

Joan den igandeko, uztailaren 21eko, Egin egunkariak zekartzan zure adierazpenetan azaldutako esaldi batean oinarritu nahi nuke: «...mantiendo siempre la postura de firmeza de la violencia, ETA y demas...». Zuk ongi dakizu, indarkeria guztiak ez direla suzko eta tiro hotsa ateratzen duten armekin egiten. Ba dira borroka amaturak egiteko beste bide batzuk ere: Adibidez, ez duzu ukatuko, eskolak eta komunikabideak arma eraginikorak ez direnik; eta horrelako beste arma asko aipa daitezke.

Zuk ongi dakizu, ETA sortu baino askoz lehenago, bere esku dituen arma mota guztiak erabiliz, Espainiako gobernuak Euskal Herriarekin egin duen eta egiten ari den deserritzea eta

deseuskalduntzea. Hori gogorkeria ez bada, esaidazu zer den.

Bestalde, suzko armei bagazozkie ere, zuk ongi dakizu ETAK baino askoz gehiago dituela armadak, polizia eta ertzainak. Arma horiek, ordea, ez dituzu inoiz ere gaitzesten, beti ETArekin baizik. Oraingoan, ordea, «...ETA y demas...» esatean, ba dirudi horiek ere gaitzetsi nahi dituzula. Nire ustez, horiek denak gaitzesten eta desegiten badira goitik hasita beheraino, ETArekin ez luke izateko arrazoirik ukango. Beraz, nik HBren herri ez dakidan arren, ez dut uste puntu horretan akordioa heltzea zaila izango litzatekeela.

MORKOTSA ARRASATE

Berriro ere ibaia kutsatu dute

Iragan den larunbatean (uztailak 20), hain zuzen, Ondarroan Artibai ibaian ehundaka arrain eta karra-marro hilda aurkitu ziren isurketa toxiko baten ondorioz.

Ez da ez lehenengo aldiz horrelakorik gertatzen dela, ez horixe, baina aspaldi honetan maiz gertatzen dira horrelakoak nahiz eta beti ez aurkitu arrain hilak.

Kutsatzaileek asteburuak aprobetxatzen dituzte beraien isurketak gauzatzeko, eta normalean ostiral gauean edo larunbat goizean egiten dituzte.

Ondarroako Eguzkiak zera salatu nahi du:

— Ibaierikiko ardura ez nabaria, estolda bat bihurtu dugularik.

— Isurketak ekiditeko bigilatzariak ez.

— Gure lurra defentsarako legedi eskasa, biguna eta kutsaduraren aldekoa.

— Kutsatzaileei kutsatu ez dezaten teknologia aproposa ez erabiltzea eta kutsatutakoa ez garbitzea.

— Garbiketa sistemak oraintxe bertan jarzea ibaia pikutara joan aurretik.

Dagokion instituzioari exigitzen diogu gertakizun hori lehenbailehen argitu dezala eta egon daitezkeen beste batzuk ekiditeko neurriak har ditzala.

EGUZKI ONDARROA

PERTSONAIA



Mikhail Gorbaxov

Marxismo eta leninismoak alda behar du pausoa sozialdemokraziara pasa hau bai bide erosoa Gorbaxov jaunak horixe dio hortik jo du erasoa sozialismoak frakasatu du ote da egi osoa? ea zerorek izaten dezun egiazko frakasoa.

SANTI ZABALA 'LEXO'

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Zuzendaria: PELO ZUBIRIA

Kontseilu Editorialeko Lehendakaria:

JOAN MARI TORREALDAI

Zuzendariordeak:

NEREA AZURMENDI

Kontseilari Ordezkarria:

JOXE MIEL ZUMALABE

LUZIAN ETXEHARETA

INAKI URIA

Gerentea:

INMA GOMILA

Publizitatea:

KORNELIO ROTETA

Egunkaria

Batzorde Parekidea: 72564 E
Lege Gordailua: SS 800/90

HELBIDEAK

Egitza soziala, Pulizitatea eta Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1. / 20.010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxa: 45 59 57

Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02 Pabiloak / 20.160 Lasarte-Oria / ☎ 37 15 45 / Faxa: 36 54 93

Araba: San Antonio, 20-1. ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13. esk. / (Irrintzi dorrea) / 31011 Iruña / ☎ 17 80 78 / 79 / Faxa: 17 80 77

Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1. eskuma. / 48002 Bilbo / ☎ 423 90 62 / Faxa: 423 94 60

Lapurdia / Nafarroa Behera / Zuberoa: 2. Galuperia kaia. / 64100 Baiona / ☎ 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11